

# Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Zuraideko Talde Abertzalea  
6. Zenbakia – 2017eko urtarrila

*2017 Urte berri on!*

Laster hiru urte herriko kontseiluan gure ekarpen biziaren ekartzera bermatzen girela.

Horregatik kazeta hau hasiko dugu, gu sorburuan izan edo ez, herriko kontseiluak iragan urtean hartu zenbait erabaki zorionduz :

- Iparraldeari lehen aldiko ezagupen juridiko erabakikorra ematen dion Euskal Herri Hirigune Elkargoaren onespena,
- Europako beste ehunka herrik egin bezala, TAFTA/CETA hitzarmen komertzialen errefusa,
- Herriko kontseiluko bilkura-agiriak hautetsiei zentzuzko epean igortzeko erabakia (azkenean !),
- Frantses gobernuari zuzendu gutunaren izenpetzea (beste 600 hautetsirekin batera), Euskal Herrian bakearen lortzeko gehiago inplika dadin galdetuz.

## Gure ondarea? Tripotxa!

2016ko irailaren 18an, ondarearen eguna kari, Zuraidek lehen aldiko, « Tripotx eguna » deitu lagun arteko egun kulturala antolatu zuen. Asteburu hori Zuraideko eta inguruko ofizialeen eta komertsanteen hobeki ezagutzeko parada izan zen, gure herri maitearen potentziala eta aberastasunak agerian emanaz. Egun horretan, herritarrek eta ingurukoek elkartzeko eta trukatzeko okasioa ukan zuten : herriko artisten obrei so eginez, edo trago bat edanez musika eta dantza lagun. Hitz batez, kausitze polita izan da lehen ekimen hori. Herriko kontseilua zorientzen dugu, eta berezikiago kultur komisioa, azpimarratuz gure hautetsia den Serge Zudaire komisio horren barne dela, eta jadanik ondoko ediziorako hobekuntzen xerka hasia dela.



Ez ditzagun ahantz, sinbolikoa gelditzen den Lurramari zuzenduriko diru-laguntza, eta « Tripotxaren eguna »ren abiatzea, zeintan gure ordezkariak parte hartu duen.

Halere, puntu ezezkorrak ere badira, baina garrantzitsua iduritzen zaigun bakar bat azpimarratuko dugu.

2016/06/09ko herriko kontseiluan, Auzapez Jaunak jakitera eman zuen ordezkartzaren koadroan hartu erabaki bat : eskola publiko berria bi geletara pasatzea (hiru aitzinikusiak zirelarik).

Herriarentzat handia den obratze horretan hutsegite nagusi bat ikusten dugunez, artikulu bat eskaintzen diogu aldizkari horretan..

6. Zenbakia – 2017eko urtarrila

**Zuraide indarrean – Souraïde dynamique**

Agorretako bidea 681 – 64250 ZURAIDE – zuraideindarrean@gmail.com – www.zuraideindarrean.eu

# ZURAUDE-ARAMAIO anaitasunean



**H**erriko bozetako programan, kultura eta sensibilitate bereko hegoaldeko herriekin parekatzea aipatu ginuen, eta horretan ari gara.

Xede horrekin ginen Aramaiora joan, iragan urriaren 15ean, ALAIKI dantza taldeaz lagundurik.

Aramaio, 1 478 biztanle dituen Arabako herri polita, gutariko baten sorterrria da. Hain untsa egiten dakiten bezala, herritarrek ongi etorri kartsua eskaini zaukuten :

- Rosak prestatu zigun hameketakoa : ogi freskoa txistorrekin, tokiko sagardoaz lagundurik.
- Herriko karrika nagusian desfilean eta poteoan ibili ginen.
- Hiru belaunaldi elkartzen zituen dantza ikusgarrian, Zuraideko ALAIKI dantza taldeak dantzatu zuen, arrakasta handia bilduz.
- Eskaini ziguten bazkarian elkar ezagutzeko parada izan genuen, euskaraz, gure hizkuntzan hitz eginez.

Zuraideko bestetan Igantziko nafartarrekin batera hurbildu ondotik, harreman iraunkor baten mentura dugu. Ildo hortarik jarraitzea proposatua izanen zaio Herriko Kontseiluari.



## HELEP, abian : EHHE da!

2016ko urtarrilaren 1az geroz (NOTRe legea), 6 milioi biztanleko eskualde baten barne da Euskal Herria, hau da, Austria bezain handia eta Dinamarka bezain jendetsua den eskualde batean kokatua. Akitania Berri horretan, Euskal Herria bizi eremu nagusi bat da, bere 300 000 biztaleekin.

2017ko urtarrilaz geroz eta beti NOTRe legearen ondorioz, departamenduko eskema berriaren onartzeak herrien arteko karta berri bat ekarri du. Izan ere, 2016ko uztailaren 13an, Pirinio Atlantikoetako prefetak 10 herri elkargoen bateratzea erabaki zuen, Euskal Herriko Hirigune Elkargoa (EHHE) sortuz. Ondorioz Euskal Herriko 158 herriak gobernantza bateratuko Hirigune Elkargo bakarrean bilduak dira... Ezin sinetsia! Gure Euskal Herriko

historiaren liburu handian orrialde berri bat idekitzen da : hautetsien eta eragile politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen lanari esker, proiektuendako eta Euskal Herriko herri guzien arteko etorkizun komun baten ikuspuntu partekatu batendako espazioa sortu da. Ez zuen orain arte Frantziako lurralde bakar batek ere holako talde lanik erakutsi! Hirigune Elkargo horri eta kudeatuko dituen kompetentziei esker (laborantza kontuan hartzen duen ekonomia, antolamendua, mugikortasuna, ingurumena, kultura, norbanakoentzako zerbitzuak, finantzak), itsasbazterren eta barnealdearen artean politika publiko handinahikoa, koherentea, elkarren artekoa eta solidarioa plantan ezartzen ahalko da. Gainera, bere gisako batasun forma horrekin, EHHEak ukanen duen toki nagusiak

Eskualde Handiko beste kolektibitateekin elkarriketak errestuko ditu eta bere proiektuei irakurgarritasun handiagoa emanen die. Frantses iraultzaz geroztik Euskal Herriak ezagupen instituzional bat galdetu izan du beti. Egun, Estatuaren proposamen baten eta tokiko aktoreen itzaropenaren arteko hautsi-mautsia bezala agertzen da EHHE. Immateriala zenak (kultura, hizkuntza, nortasuna) Estatuaren ezagupena duen koadro instituzionala du orain. Zuraide Indarrean harro da bere mobilizazioaren bitartez, kazetetan HELEPari buruzko informazioa zabalduz, Herriko kontseilura HELEPari buruzko eztabaidak ekarriz, bere mailan, EUSKAL HERRIarentzat erabakikorra den aldaketa horretan parte harturik.



## Eskola publikoa

2016ko buruila hastapena, herri guzietan bezala, Zuraidar gazteek eskolako bidea hartzen dute. Horietarik 41 lorietan daitzke, beren eskola publiko berriaren ezagutza egiteaz xifriturik: eraikuntza guziz ederra, atsegina, koloretsua, ingurumenean ontsa kokatua! Gainera lehen aldikotz, horietarik anitzek euskaraz ikasten ahalko dute. Eta bai, sekulan ez da etsitu behar... azkenean Zuraideko eskola publikoak sail elebiduna eskaintzen du. Bainan bozkarioa laburra izan da... 30 ikasle dira 5 mailetan banatuak, CPTik CM2raino errientsa batentzat, anitzez SOBERA da!

Ikasturte sartzea eta berehala, Zuraideko sartzeetan, burasoek lotu banderolak agertu dira. Ihardukimendu bat ageri dira burasoen aldetik, erakasle postu gehigarri bat galdeginez: Zuraide Indarreaneko kideen iduriko, mugimendu zuzena daramate.

Eraman ekintzetan, herriko etxean gehiengoan diren hautetsiengandik laguntza ofizial mikorik ukan ez badute ere, izendapen bat erdietsi dute: denbora erdiz arizanen den irakasle ordezeko bat izendatua izan da. Behin-behineko egoera bat baizik ez da...

Elebitasuna, 3 erakasle eta ... 2 ikasgela! Eguneroko ibilerak erakusten du hastapeneko eraikuntza proiektuetan agertzen zen hirugarren gelaren eskas gorria. Auzapezak, hiru geletatik bi geletara pasatzeko hartu erabaki horrek ezin jasanezko lan baldintzak sorrarazi ditu erakasle eta langileentzat (2 erakaslek partekatzen dute ber gela-espazioa) eta nola ez aipa ikasleen irakaspenentzat desegokia den lan giroa.

Eskola kontseiluan, arazo guzi horiek zerrendatu ondoan, erakasle eta burasoek auzapezari galdegin diote gela gehigarri baten obratzea bideragarria ote zen. Gaiaz gogoetatzeko, Eskualdeko Ikuskariaren, erakasleen eta auzapezaren arteko bilkura bat iragan beharra zen azaro hondar edo abenduan. Urtarril huntan iragan da azkenean...



Gure hautetsi bakarrak bere aldetik, eskolako burasoekin bildu eta, haien eginbidea sustengatzen dugula seinatu zuen azaroaren 29ko herriko kontseiluan, hirugarren ikasgela hori beharrezkoa dela azpimarratuz. Erabaki hau guziz herriko kontseiluaren eskuetan da.

Horri gehitu behar diogu, eta deitoratzen dugu, haurrek, erakasleek eta langileek bizi izan dituzten arrangura eta zailtasun horiek sekula ez direla aipatuak izan eskola sartzetik geroz iragan diren hiru herriko kontseiluetan...

Damutzen gira ere Omiainsainduko oporretan iragan den eskolaren estreina, burasoak eta ikasleak hor izan gabe egin izanaz!!!

Bestalde, erakasleek nahi izan dute, proiektu pedagogiaren koherentziari begira, eskolako laguntzaileak euskarazko formakuntza baten segitzeko aukera ukan zezan. Azken hau proposamenarekin ados da, eta espero dugu enplegatzaileak koherentzia xerkatze hori ontzat emanen duela, eskaerari erantzun baikor eta laster bat emanez.

# ZIRIMIRI

● ● ● Herriko kontseilu batetik bestera... prezioak kartara ?

- ✓ 2015eko agorrila : lur saltzea Xaran bidean, 95 €/m<sup>2</sup>-tan
- ✓ 2015eko azaroa : lur saltzea Uhaldean, 40 €/m<sup>2</sup>-tan, aparkalekuentzat
- ✓ 2016ko urtarrila : Etxetoa etxe multzoko lurren prezioa 80 €/m<sup>2</sup>-tan finkatua
- ✓ 2016ko ekaina : Departamenduko Kontseiluari lur erostea herri zentroan 13,40 €/m<sup>2</sup>
- ✓ 2016ko urria : lur saltzea herri zentroan, 5 €/m<sup>2</sup>-tan

Bakoitzak prezia dezala...

● ● ● Herriko Kontseiluetako bilkura-agiriak gure webgunean aurki daitezke : <http://www.zuraideindarrean.eu>

### ● ● ● Komunikazioa sanotu

Irailaren 21ean herriko etxean bildu ziren zuraidar anitz bezala, iragarri ziguten « saneamendu gunearen proiektua » ezagutu-nahia ginen. Eta anitz bezala, nahigabeturik egon ginen, jadanik existitzen den sarearen aurkezpena baitzen gehienbat. Segur, inkesta publikoaren koadroan bilkura hori nahitaezkoa zen, baina ez ote zen urrunago joateko eta etorkizunari pentsatzeko parada ?

### ● ● ● Errekartia

+ = - « **Gehiago erosi, orduan eta merkeago!** » Hala oihukatzen ahalko du Errekartiaren ustezko erosleak. Hasiera batean 360 000€tan salgai emana zen 2 000m<sup>2</sup>-rekin, orain 305 000€tan saldu beharra da 1 000m<sup>2</sup> gehiagorekin, hots, 3 000m<sup>2</sup> ! Afera ona !

### ● ● ● Errekartia (bis)

- ✓ 2015/11/30eko HK : « herriaren errefusa, ez baitu promotore bati saldu nahi »
- ✓ 2016/12/8ko HK : Huba jaunari salmenta... azken hau promotorea delarik !

### ● ● ● Irtzargailuak pitz!


20. Korrika Zuraidetik pasako da apirilaren 3an, astelehenez... goizeko 1ak40tan ! Zato euskararentzat laster egitera!



# Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Groupe Abertzale de Souraïde

Numéro 6 – Janvier 2017



*Bonne année 2017 !*

Bientôt trois ans que nous nous efforçons d'amener notre contribution dynamique au conseil municipal.

C'est pourquoi, que nous en soyons à l'origine ou pas, nous commencerons cette gazette en exprimant tout le bien que nous pensons de certaines résolutions du conseil municipal de l'année écoulée :

- approbation de la Communauté d'Agglomération Pays Basque qui donne pour la première fois une existence juridique décisive à Iparralde,
- refus des accords commerciaux TAFTA/CETA à l'instar de centaines d'autres collectivités locales européennes,
- décision d'envoyer (enfin !) les comptes rendus des conseils municipaux aux élus dans un délai raisonnable,
- adresse au gouvernement français (avec 600 autres élus) pour qu'il s'implique d'avantage dans la recherche de la paix au Pays Basque.

## **Notre patrimoine ? Le tripotx !**

C'est pour la journée du patrimoine, le 18 septembre 2016, que Souraïde a décidé d'organiser, pour la première fois, une journée culturelle mais aussi conviviale et qui a pris la forme de la « journée du tripotx ». Ce week-end fut l'occasion de mieux connaître les producteurs et artisans locaux et notamment Zuraidars, permettant une prise de conscience des potentialités et richesses de notre cher village. Cette journée a aussi été l'occasion de se retrouver et de partager entre villageois et curieux des alentours un moment de contemplation devant quelques œuvres d'artistes du village ou simplement un verre autour d'un air de musique et d'une danse. En bref, une jolie réussite pour cette première édition ! Nous saluons la municipalité et plus particulièrement la commission culture dont fait partie notre élu, Serge Zudaire, qui s'attelle déjà à chercher des améliorations pour la prochaine édition.



N'oublions pas de saluer également la mise en place d'une subvention (même symbolique) à Lurrama ou la création de la « journée du tripotx » pour laquelle notre représentant a pris sa part.

Il y a pourtant des points négatifs mais nous n'en soulignerons qu'un, car il nous semble d'importance.

Lors du conseil municipal du 09/06/2016, Monsieur le Maire nous annonçait une décision prise dans le cadre de la délégation : le passage à deux classes (au lieu des trois projetées) pour la nouvelle école publique.

Il commettait pour nous une erreur majeure sur une réalisation importante pour la commune et c'est pourquoi nous lui consacrons ici un article.

Numéro 6 – Janvier 2017

**Zuraide indarrean – Souraïde dynamique**

681 chemin Agorreta – 64250 SOURAÏDE – zuraideindarrean@gmail.com – www.zuraideindarrean.eu

## ZURAUDE-ARAMAIO anaitasunean



**D**ans notre programme municipal, nous proposons de mettre en place des jumelages avec des villages d'hegoalde, de même culture et de même sensibilité et nous y œuvrons.

C'est dans ce but que nous sommes allés à Aramaio le 15 octobre, accompagnés du groupe de danse ALAIKI.

Aramaio, dont est issue une des nôtres, est un joli village de 1 478 habitants, situé dans la province d'Alava. Ses habitants nous ont réservé un accueil chaleureux, comme ils savent si bien le faire.

- *Ongi etorri* de Rosa autour d'un *hameketakoa* au pain frais et *txistor* accompagnés d'un bon cidre local.
- Défilé poteo dans la rue principale du village.
- Spectacle de danses, trois générations confondues où nos danseurs d'ALAIKI ont fait sensation par la qualité de leur prestation.
- Le repas gastronomique offert a permis de faire plus ample connaissance, dans notre langue commune, le basque.

Après leur visite lors des fêtes de Souraïde, accompagnés des navarrais d'Igantzi, la voie semble désormais ouverte pour pérenniser cette relation. C'est ce que nous proposerons au Conseil Municipal.



## L'EPCI, c'est parti : c'est la CAPB !

Depuis le 1<sup>er</sup> janvier 2016 (LOI NOTRe), le Pays Basque est inclus dans une région de 6 millions d'habitants, aussi grande que l'Autriche et aussi peuplée que le Danemark. Dans cette Nouvelle Aquitaine le Pays Basque, avec ses 300 000 habitants, constitue un important bassin de vie.

Depuis le 1<sup>er</sup> janvier 2017 et toujours du fait de la loi NOTRe, une nouvelle carte intercommunale a vu le jour après l'adoption du nouveau schéma départemental. En effet, le 13 juillet 2016, le Préfet des Pyrénées Atlantiques a pris un arrêté portant la création de la Communauté d'Agglomération du Pays Basque (CAPB) issue de la fusion des 10 intercommunalités. Les 158 communes du Pays Basque sont ainsi à ce jour regroupées en une communauté d'agglomération avec une

gouvernance unifiée... Incroyable ! C'est bien une nouvelle page du grand livre de l'histoire de notre Pays Basque qui s'ouvre : grâce au travail des élus et de tous les acteurs politiques, économiques, sociaux et culturels, un espace pour des projets et une vision partagés d'un avenir commun entre l'ensemble des communes du Pays Basque a vu le jour. Aucun territoire en France n'avait encore produit un tel travail collectif ! Grâce à cette Communauté d'Agglomération et aux compétences qu'elle gèrera (économie dont l'agriculture, aménagement, mobilité, environnement, culture, services à la population, fiscalité) une politique publique ambitieuse, cohérente, réciproque et solidaire entre le littoral et l'intérieur pourra être mise en place. Par ailleurs, sous cette forme originale d'union, la CAPB aura une

place majeure, facilitatrice de dialogue avec les autres collectivités de la Grande Région et une plus grande lisibilité dans ses projets. Depuis la Révolution Française le Pays Basque a toujours exprimé une demande de reconnaissance institutionnelle. Aujourd'hui, la CAPB apparaît comme le compromis entre une proposition de l'Etat et les attentes des acteurs locaux. Ce qui était immatériel (culture, langue, identité) trouve aujourd'hui un cadre institutionnel reconnu par l'Etat. Zuraide Indarrean, par toute l'information au sujet de l'EPCI dans ses gazettes, par les débats portés au sein du conseil municipal sur l'EPCI, par sa mobilisation, est fier d'avoir participé, à son échelle, à ce tournant décisif pour EUSKAL HERRIA.





## École publique

Début septembre 2016, comme partout ailleurs, les petits zuraidar reprennent le chemin de l'école. Pour 41 d'entre eux, c'est très certainement l'euphorie ! Ils ont sans doute hâte de découvrir leur nouvelle école publique : un superbe bâtiment, agréable, coloré, bien intégré dans son environnement ! De plus, pour la première fois, beaucoup d'entre eux vont pouvoir apprendre en euskara. Et oui, tout arrive ... l'école publique de Zuraide dispose enfin désormais d'une section bilingue.

Mais la joie fut de courte durée ... 30 élèves sur 5 niveaux du CP au CM2 pour 1 seul maître, c'est beaucoup TROP !

Alors, très vite après la rentrée, des banderoles sont installées par les parents d'élèves aux entrées du village. Un mouvement de contestation visant à obtenir un poste d'enseignant supplémentaire que nous, membres de Zuraide Indarrean, jugeons bien légitime ! Bien que n'ayant bénéficié d'aucun soutien officiel de la majorité municipale lors des différentes actions menées, les parents d'élèves obtiennent finalement de l'Académie l'affectation à mi-temps d'un enseignant pris sur le contingent de remplaçants. Situation éminemment provisoire...

Bilinguisme, 3 enseignants et... 2 salles de classe ! La réalité de fonctionnement des cours fait apparaître le manque cruel d'une 3<sup>ème</sup> salle, initialement prévue dans les projets de construction. La décision du maire de restreindre à 2 salles génère aujourd'hui des conditions de travail insupportables pour les maîtres et le personnel (2 enseignants se partagent actuellement le même espace-classe) et, pour les élèves, un climat peu propice aux apprentissages.

Lors du Conseil d'École, après avoir listé les problèmes rencontrés, parents et enseignants ont demandé à Mr le maire si la réalisation d'une salle supplémentaire était envisageable. Une réunion entre l'Inspecteur de circonscription, les enseignants et le maire devait être organisée fin novembre, début décembre pour aborder la question. Elle s'est finalement tenue en janvier...

Notre représentant élu a pour sa part signalé lors du conseil municipal du 29 novembre, qu'après avoir rencontré les parents d'élèves, nous soutenions leur démarche et que la création d'une troisième salle de classe, qui ne dépend que de la décision du CM, était indispensable.

Il nous faut ajouter, et nous le déplorons, qu'à aucun moment lors des 3 conseils municipaux ayant eu lieu depuis la rentrée, n'ont été évoqués les soucis et difficultés vécus par les élèves, les enseignants et le personnel ... Nous regrettons également que l'inauguration de l'école, pendant les vacances de Toussaint, se soit déroulée sans la présence des parents, ni même de celle des enfants !!!

Les enseignants ont souhaité, pour la cohérence du projet pédagogique, que l'ATSEM puisse bénéficier d'une formation en euskara. Celle-ci en est d'accord et nous souhaitons qu'une réponse positive et rapide de l'employeur vienne valider cette recherche de cohérence.



# ZIRIMIRI

● ● ● Au fil des Conseils Municipaux... des prix à la carte ?

- ✓ Août 2015 : vente de terrain chemin de Xaran à 95 €/m<sup>2</sup>
- ✓ Novembre 2015 : vente de terrain pour parkings à Uhaldea à 40 €/m<sup>2</sup>
- ✓ Janvier 2016 : prix de vente des terrains du lotissement Etxetoa fixé à 80 €/m<sup>2</sup>
- ✓ Juin 2016 : achat de terrain au Conseil Départemental au centre du bourg, à 13,40 €/m<sup>2</sup>
- ✓ Octobre 2016 : vente de terrain au centre du bourg à 5 €/m<sup>2</sup>

Chacun appréciera...

● ● ● Les comptes rendus des Conseils Municipaux sont accessibles sur notre site <http://www.zuraideindarrean.eu>

### ● ● ● Assainir... la communication

Comme beaucoup de Zuraidar présents à la mairie le 21 septembre dernier, nous étions curieux de découvrir le « projet de zonage d'assainissement » qui nous avait été annoncé.

Et comme beaucoup, nous avons été déçus par ce qui était essentiellement une présentation du réseau actuel existant déjà. Certes la réunion était obligatoire dans le cadre de l'enquête publique mais n'était-ce pas l'occasion d'aller un peu plus loin et de réfléchir à l'avenir ?

### ● ● ● Errecartia

+ = - « **Plus j'achète, moins c'est cher !** » C'est ce que va pouvoir crier haut et fort l'acquéreur potentiel d'Errecartia. Proposée au départ à 360 000 € avec 2 000 m<sup>2</sup>, la propriété va sans doute être vendue 305 000 € avec 1 000 m<sup>2</sup> de plus, soit 3 000 m<sup>2</sup> ! Une bonne affaire !

### ● ● ● Errecartia (bis)

- ✓ CM du 30/11/2015 : « refus de la municipalité, ne voulant pas vendre à un promoteur »
- ✓ CM du 8/12/2016 : vente à monsieur Huba... qui n'est autre qu'un promoteur !

### ● ● ● À vos réveils !

La 20<sup>ème</sup> Korrika passe par Zuraide le lundi 3 avril... à 1h40 du matin ! Venez courir pour l'euskara !

